

## **I. PROZESUAREN IZAERA ETA EGITURA**

- Prozesua: gatazkak konpontzeko baliabidea
- EK 117.3 art.: “Ahalmen jurisdikzionalaren egikaritzea prozesu mota guztietan, epaituz eta epaitua betearaziz, legeek zehaztutako Epaitegi eta Auzitegiei eskusiboki dagokie berauek zehazten dituzten eskumen eta prozedurari buruzko arauen arabera”. Ondorioa: Epaitzea, epaitua betearaztea eta bi hauek bereziki zaindu (kautela-babesa) prozesuaren bitartez burutzen dira.
- Elementu nagusia: Jurisdikzioa. Menpekota / instrumentala: Prozesua
- Gure helburua honakoa argitzea izango da: Zer da prozesua? Nolakoa da prozesua?

## **II. PROZESUAREN EZAUGARRIAK**

- Instrumentala
- Artifiziala
- Teknikoa

## **III. PROZESUAREN IZAERA JURIDIKOA**

### **A) Prozesuaren izaera juridikoa zehaztea. Zertarako?**

- Izaera juridikoa zehaztea = dagokion maila juridiko orokorra bilatzea (generoa).
- Helburua: Lege-hutsuneen edo lege-kontraesanen aurrean ordezkotza bezala aplikatu ahal diren arauak zehaztea.
- Prozesuaren izaera juridikoaren eboluzioa = jurisdikzioaren kontzeptuaren eboluzioa.
- Teoriak nagusiak prozesuaren zergatia azaltzeko:

### **B) Teoria nagusien sintesia**

#### **1. TEORIA PRIBATISTAK**

Teoriarik zaharrenak. Prozesuaren izaera juridikoa Zuzenbide Pribatuan / Zuzenbide Zibilean kokatzen dute. Horregatik, prozesu zibila baino ez dute kontuan hartzen.

#### **A. “Litiscontestatio” kontratuaren teoria**

- Justizia pribatuaren eta Estatuaren monopolio jurisdikzionalaren arteko egoera.

# ZUZENBIDE PROZESALA I

## 11. gaia: Prozesua. Kontzeptua, izaera eta motak

2018/2019  
ikasturtea

- Edukia: Prozesua *"litiscontestatio"* kontratuan oinarritzen da → alderdiak konpromiso edo kontratu baten menpe jartzen dira. *"Iudex"*aren betebeharrak: demanda eta aurka-egitea ezagutu eta epaia eman ahal izateko beharrezko jarduera prozesala egin; epaia betearazi.
- Teoria hau desagertu zen estatuak ahalmen juridikzionala bere gain hartu zuenean.

### B. *"Litiscontestatio" kuasikontratuaren teoria*

- Edukia: Demandatua prozesuari lotuta geratzen da demandatuaren borondatearengatik. Demanda aurkeztean demandatzaileak demandatua prozesura joatera behartzen du.
- Alde bateko harreman pribatua datza.

## 2. TEORIA PUBLIZISTAK

XIX. mendearen erdialdera Alemanian sortutakoak. Teoria horien arabera, prozesuaren izaera juridikoa Zuzenbide Publikoan dago, jadanik existitzen diren kategoria juridikoak edo berezko kategoriak oinarritzat hartuz.

### A. Jadanik dauden kategoria juridikoak: *Harreman juridikoaren teoria*

- Edukia: Akzioaren egikaritzea, alderdien eta epailearen arteko harreman juridiko publikoa da. Epailea pertsona publikoa da.
- Teoria horren ekarpena: Zuzenbide Prozesala Zuzenbide materialetik banatzen da.

### B. Berezko kategoria juridikoak: *Egoera juridikoaren teoria*

- Edukia: Prozesuaren helburua = aldeko ebazpen juridikoa lortzea. Prozesuan zehar alderdiak egoera juridiko desberdinetatik pasatzen dira haien eskubideei dagokienez. Egoera juridikoa = auziaren aintzatespen judizialerako itxaropen juridikoki oinarritua. Prozesuan alderdiak harremanetan jartzen dituen egoera juridikoa da.
- Ekarpina: Egintza prozesalen sistematizazioa.
- Kritika: Prozesuaren izaera bilatzeko ez du baliorik.

ONDORIOA: teoria horiek ez dute balio prozesuaren izaera juridikoa argitzeko edo zehazteko. Teoriek ez dute azaldu arau osagarriak zein izan beharko luketen.

**C) Prozesuaren existentziaren arrazoia**

- Gaur egun: Aurreko teoriak gaindituta daude. Prozesua kategoria orokorretan sartzeko saioek garrantzia galdu dute.
- Prozesua kategoria autonomoa da eta argitu beharrekoa prozesuaren izatea eta arrazoia dira. Prozesua baliabide edo tresna beharrezkoa eta bakarra da.
- Prozesuaren garrantziaren zergatia: Jurisdikzio-organoez epaitu, epaitutakoa betearazteko eta kautela-babesaren bidez bi horiek babesteko funtzioa bete ahal izateko beharrezko baliabidea da prozesua. Gainera, alderdiek hauen legezko eskubideak eta interesen babes eraginkorra lortzeko baliabidea dugu prozesua.

**IV. PROZESUA (proceso), PROZEDURA (procedimiento) ETA EPAIKETA / JUDIZIAMENDUA (juicio / enjuiciamiento)**

**1. PROZESUA**

- Jurisdikzio funtzioa soilik egikari daiteke prozesuaren bidez. Jurisdikzioak eta prozesuak lotura estua duten kontzeptuak dira, prozesurik gabe ez dago jurisdikzio funtzioa egikaritzetik. Hortaz, batetik, jurisdikzio organoek haien funtzioa egikaritzeko baliabidea dugu prozesua, eta horri esker jurisdikzioa gauzatzen da. Bestetik, herritarrek babes juridiko eragingarria lortzeko estatuaren aurrean eskubidea egikaritzeko baliabidea dugu prozesua.
- Jurisdikzio funtzioari bakarrik dagokion kontzeptua da.

**2. PROZEDURA**

- Prozedura kontzeptua ez dagokio jurisdikzio funtzioari soilik, Estatuaren bestelako funtzioei aplikagarri zaie (legegintza prozedura, administrazio prozedura...)
- Prozedurak formari, kanpoko itxurari, egintzen segidari... egiten die erreferentzia.
- Prozesu oro prozeduraren bidez gauzatzen / garatzen da.

**3. EPAIKETA eta JUDIZIAMENDUA**

- Epaiketa kontzeptuari adiera ezberdinak eman zaizkio:
  - o Erdi aroko zuzenbidean: epaiketa = epaia (prozesuaren helburua).
  - o Prozesu zibilean: epaiketa = prozesuaren zati nagusia, epaketaren egintza.
  - o Zigor prozesuan: epaiketa = prozesua osotasunean (delitu arinen epaiketa) edo bigarren fasea (ahozko epaiketa)
  - o Epaiketa = epaitzea, juzgatzearen ekintza.

# ZUZENBIDE PROZESALA I

## 11. gaia: Prozesua. Kontzeptua, izaera eta motak

2018/2019  
ikasturtea

- Judiziamendua = prozesua, prozedura eta epaiketak osatutako multzoa = Epailearen gogoeta gatazka bat ebazteko.

### V. PROZESU MOTAK

Prozesuaren kontzeptua bakarra da; baina, prozesu mota desberdinak. Prozesuak sailkatzeko irizpide nagusiak:

- a) Aplikagarri den materia substantiboaren arabera: prozesu zibila, zigor-prozesua, administratiboa eta lan prozesua.
- b) Epaileei herritarrek eskatutako edo epaileek herritarrei emandako babes motaren arabera (EK-ren 117.3 art., PZL-ren 5 art.): deklaratzailerak edo adierazpenezkoa, exekutiboa edo betearazpenezkoa eta kautelarra edo kautelazkoa.

### A) APLIKAGARRI DEN MATERIA SUBSTANTIBOAREN ARABERA

#### 1. Prozesu zibila

- Arauketa: Prozedura Zibileko Legea (Ley de Enjuiciamiento Civil) urtarrilaren 7ko 1/2000 Legea.
- Prozesurik zaharrena eta hasiera batean mota guztietako uzietarako. Eboluzioa: Gatazka zibil eta penalen arteko bereizketa.
- Ezaugarriarik garrantzitsuenak: **Oportunitate edo aukera-printzipioa** (principio de oportunidad). Interes pribatua gailentzen da, norbanakoen interesa:
  - o Zuzenbide pribatuaz ari garenean, borondatearen autonomia gailentzen da. Harreman juridiko materialak existitzen dira.
  - o Oro har, zuzenbide pribatua partikularrek aplikatzen dute, jurisdikzio organoen esku hartzerik gabe.
  - o Gatazkak sortzen direnean, jurisdikzio organoetara jotzea ez da irtenbide bakarra; alderdiek badituzte gatazken ebazpenerako ordezko bideak.
  - o Prozesuaren hasiera partikularren esku dago (akzio-eskubidearen egikarritza), euren interesak ongien babestuko duen bidea aukeratuz.

#### 2. Zigor prozesua

- Arauketa: Prozedura Kriminalaren Legea (Ley de Enjuiciamiento Criminal) 1882ko irailaren 14ko Errege Dekretua
- Helburua: Estatuari eskusiboki dagokion *ius puniendiaren* aplikazioa.
- Ezaugarriarik garrantzitsuenak: **Beharrian-printzipioa** (principio de necesidad). Gizartearen interesak gailentzen dira:

# ZUZENBIDE PROZESALA I

## 11. gaia: Prozesua. Kontzeptua, izaera eta motak

2018/2019  
ikasturtea

- Zigor egintzaren parte diren alderdien artean ez dago harreman juridiko materialik, ez dago euren arteko gatazkarik. Biktimak ez du eskubide subjektiborik delitugileari zigorrak ezartzeko.
- Partikularrek ezin dute zigor zuzenbidea ezarri. Hori egiteko eskumena Estatuak du soilik.
- Ustezko deliturik izan denean, prozesua martxan jarriko da (posizio aktiboan Ministerio Fiskala izango dugu zigor akzioa egikaritzen).

### 3. Lan prozesua

- Arauketa: Lan Jurisdikzioaren Legea (Ley reguladora de la Jurisdicción Social) urriaren 10eko 36/2011 Legea.
- Oinarria prozesu zibilean du, eta ondorioz, LJLak aurreikusten ez duenari aplikagarri izango zaio era osagarrian Prozedura Zibilaren Legea (legearen azken xedapenetan laugarrena).
- Ezaugarriak garrantzitsuena: oportunitate edo aukera-printzipioa eta bere printzipio eratorriak.
- Berezitasunak: Lan-harremanen eremurako babes pribilegiatua da. Prozedura zibila baino azkarragoa da.

### 4. Administrazioarekiko auzien prozesua

- Arauketa: Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko Legea (Ley reguladora de la Jurisdicción Contencioso-administrativa) uztailaren 13ko 29/1998 Legea.
- Oinarria prozesu zibilean du, eta AAJLaren osagarri izango da PZL (AAJLaren 1. Amaierako Xedapena).
- Terminologia-argitzea: Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa = benetako prozesua. Ez da errekurtso edo bigarren auzialdi bat. Desberdindu behar da auzialdi edo eremu administratiboa eta jurisdikzionala.
- Ezaugarriak garrantzitsuena: Oportunitate edo aukera-printzipioak eta horretatik eratorritako printzipioek eraentzen dute.
- Berezitasunak:
  - Prozesuaren alderdietako bat administrazioa izango da (prozedurari buruzko berezitasunak).
  - Auzitegi-tara jo aurretik administrazio bidea agortu behar da (administrazioaren pribilegioa).

## B) HERRITARREK AURKEZTUTAKO UZIEN ARABERA

Oinarria: EK 117.3 art.: “Ahalmen jurisdikzionalaren egikaritzea prozesu mota guztietan, epaituz eta epaitua betearaziz, legeek zehaztutako Epaitegi eta Auzitegiei eskusiboki dagokie berauek zehazten dituzten eskumen eta prozedurari buruzko arauen arabera ...”

### 1. Adierazpen prozesua (deklarazio-prozesua)

- Epaitzea = Deklarazio-fasea: zuzenbidea kasu konkretuan aplikatzea, eskubidea deklaratzeko.
- Deklarazioa desberdina da uzi motaren arabera:
  - a) Deklarazio hutseko uziak** (*pretensiones meramente declarativas*): Epaian eskubidearen deklarazio hutsak benetako babes judiziala asetzen du. Ez du ondorengo exekuziorik behar (adib. etxe baten jabetzaren aintzatespena, ezkontzaren baliogabetasuna).
  - b) Uzi eratzaileak** (*pretensiones constitutivas*): Harreman juridiko edo egoera juridiko bat sortzea, aldatzea edo iraungitzea eskatzen da; horrela epaiak harreman hori sortzen, aldatzen edo iraungitzen du. Ez dute exekuziorik behar (adib. Dibortzioa, sozietatearen desagitea).
  - c) Kondenazko uziak** (*pretensiones de condena*): Epaiak kontrako alderdia zerbait ematera, egitera edo ez egitera kondenatzea eskatzen da. Ondorengo jarduera bat beharrezkoa da errealitatea exekuzio tituluak (epaiak) deklaratzeko duenera moldatzeko. Hori borondatez bete daiteke, edo nahitaezko exekuzioaren bidez (adib. zor bat erreklamatzeko). Benetako babes judiziala lortzeko beharrezkoak dira: deklarazioa + exekuzioa.
- Prozesu zibiletan posibleak dira aipatutako hiru uzi motak; zigor prozesuetan, aldiz, kondenazko uziak bakarrik dira posible.

### 2. Betearazpen prozesua (exekuzio-prozesua)

- Epaitutakoa betearazi = Exekuzio edo betearazpen prozesua, epaiak deklaraturakoa betearazi, errealitatea egokituz.
  - o Prozesu zibilean kondenazko uziak betearazi (badaude zuzeneko exekuzioa duten tituluak, aurretiazko adierazpen prozesuaren beharrik ez dutenak).
    - a) Kondenatuak borondatez betetzea
    - b) Jurisdikzio organoek nahitaez betearaztea (= exekuzio-prozesua).
  - o Zigor prozesua: zigor epaien exekuzioa betiere jarduera prozesala da; ez da existitzen borondatezko exekuziorik (isunak salbu).

### 3. Kautelazko prozesua

- Kautelazko neurriak = kautelazko prozesua. PZL 5. art.: “Se podrá pretender de los tribunales la condena a determinada prestación, la declaración de la existencia de derechos y de situaciones jurídicas, la constitución, modificación o extinción de estas últimas, la ejecución, la adopción de medidas cautelares y cualquier otra clase de tutela que esté expresamente prevista por la ley”.

**ZUZENBIDE PROZESALA I**  
**11. gaia: Prozesua. Kontzeptua, izaera**  
**eta motak**

**2018/2019**  
**ikasturtea**

- Helburua: Denboraren igarotzeak (prozesuaren iraupenak) benetako babes judizialean eragin dezakeen kaltea ekiditea. Aurreko funtzioen (adierazpenezkoa zein betearazpenezkoa) osagarria da.
- Ezaugarria: Prozesu nagusi baten menpe dago (adierazpenezkoa zein exekuziozkoa). Prozesu nagusiaren emaitzen eraginkortasuna bermatzen du.
- Kautelazko babesa posiblea da prozesu zibiletan (prebentziozko enbargoa) baita zigor prozesuetan ere (behin-behineko espetxealdia).